


# FUNTSEZKO JARDUERAK

Aplikazio bat ez da ezer izango funtzionamendu desegokia badu. Horregatik, hori gerta ez dadin taldekide bakoitzak bere zereginak bete behar ditu. Hortaz, atal honetan bete behar ditugun funtsezko jarduerak aipatuko ditugu Mugifastek porrot egin ez dezan, oso garrantzitsua delako aurrez aurretik gure proiektuaren zutabeak finkatzea eraginkortasuna hobetzeko, hau da, lana planifikatu, erraztu eta azkartu.

Lehenik eta behin, aurreko atalean esan dugun bezala, gure esperientzia xumea den arren, tankera honetako proiektu bat gauzatzeko behar diren baliabide intelektualak ditugula sinesten dugu. Hala eta guztiz ere, software atalean trebetasun handia ez dugunez programatzaile baten esku utziko dugu zeregin hau.

Bestalde, aurreko atalari jarraipena emanez, taldekide bakoitzak proiektu honetan egingo dituen ekarpenen inguruan hitz egingo dugu, bakoitzak jorratuko dituen ardurak sakonki azaltzearekin batera.

Lehenengo, aplikazioaren funtzionamenduaren ardurapean Aiur dugu, hau da, gure aplikazioak eduki ditzakeen arazoei edo akatsei konponbidea emango die, bere esku dauden bitartean, jakina, bestela programatzaileari jakinaraziko dizkio. Gainera, bere sormen handiari esker aplikazioan eguneraketak egingo ditu eta etorkizunerako proiektu berriak pentsatuko ditu.



Bestalde, gure aplikazioaren helburua garraio publikoa hobetzea denez, honi buruzko dena jakin beharko dugu zehaztasunez. Jarduera hau Martinen menpe gelditzen da. Nahiz eta automatikoki autobusen eta trenen ordutegiak aplikazioan txertatuta egon, beti egon daitezke ezustekoak, beraz, horiek ustekabeen harrapa ez gaitzan Martin aldaketa guztietaz egongo da informatuta.



Azkenik, Asier dugu, betidanik beste pertsoneri ideiak adierazteko eta partekatzeko erraztasun handia izan du, horren harira, gure proiektuan gehien egokitzen zaion arloa bezeroen arreta da, eta horiek dituzten zalantzak edo proposamenak erantzuteko prest egongo da. Gainera, aipatutako komunikazio ahalmenari esker, beste elkarteekin harremanetan jarriko da, gure enpresa esparru desberdinetara zabaltzeko.